

EHUko ikasle eta ikerlariak Haberen liburutegia erabili ahal izateko akordioa sinatu dute

Eleaniztasuna, euskara eta hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko dokumentu eta liburuak biltzen ditu Habek

Donostia. Euskal Herriko Unibertsitateak Habek (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) duen liburutegiko materiala erabili ahal izango du hemendik aurrera atzo Donostian sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Alde batetik, unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikertzaileek Habek dituen baliabideak eskuragarri izango dituzte -honen bitartez, Estatuko gainerako unibertsitateek ere bai- eta, bestetik, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea azterlan eta ikerketa unibertsitarioen interesgune bihurtu dadin bultzatzea ere helburu du hitzarmenak.

Kultura sailburu den Miren Azkarate, EHUko errektore Juan Ignacio Pérez Iglesias eta Habeko zuzendari nagusi den Joseba Erkiziak hartu zuten parte atzoko ekitaldian.

Hemendik aurrera, Habe eta EHUko liburutegietako arduradunek bilerak izango dituzte, besteak beste, liburu eta aldizkari berrien erosketa eta harpidetzak koordinatzeko eta, honela, bikoiztapenak ekiditeko. Liburu maileguaren alorrean, EHUK Habeko katalogoari emango dio lehentasuna hizkun-tzalaritzaren inguruko argitalpenak eskatzeko momentuan eta Habek konpromisoa hartu du argitalpen horiek dagokion fakultatera helarazteko, gehienez hiru egunera.

25 urte Euskaratik abiatu, eleaztasunaren nazioarteko esparru zabaleko dokumentazioa biltzen duen liburutegia osatu du Habek azken 25 urteotan eta, gaur egun, 35.000 liburu, 600 aldizkari eta ehunka DVD, CD eta beste euskarritan dagoen dokumentu ugari biltzen ditu. 5.157 bazkide ditu eta liburutegiaren funtsak kontsultatzeko bi tresna daude eskura Interneten: katalogo orokorra eta artikuluen datu basea, 90.000 artikuluri buruzko informazioarekin. >a.z.